

Sarri entzun oi dogu: euskeraz, beste izkuntzetan baiño errezagorako neurtu daitekela bertsoz. Au dala-ta edo, euskal bertsoak aztatzeko lau alderdietatik so bear arretaz.

Gure aldizkariak era bitako itz neutruei leku damotse bere orrialdeetan. 1) Goimaillako olerki edo poesi utsezkoeri ta, 2) gure erri-olerkari edo hertsolarienari.

Len-saillekoak aldioro dabilguz laiono-irritsez, saitzar antzera; arein egazkadak ez dau iñoz be lurrik ikutzen; au da: arein idazkortzetik urtena, eder da oso, jori, arnas andiko, olerki bizi ta giartsu.

Besteok, beeratxuago dabiltz; bein edo bein ba-dagiez oneik be euren egazalditxoak, goi-zale, larratxori edo torrantxa iduri: baiña egazkada txikiak beti.

Alan be, egia autortzeko, bigarrenak doguz garrantzi geiagokoak, gure errian batez be. Goi-olerkia jaso ta bear lez txastatzeko, asko irakurri ta ikasi ezik, ezin olakorik jaritxi. Zenbatek dakigu jakin be, mendi erpiñean bizi dan erroiarengan egazkada zabal errege antzekoaren barri? Danok dakigu, ostera, bee samar dabilzan txepetx, ormatxori, karnabata kurloiena. Orobak gerta oi da mota bitariko eder-zale oneitan be.

Kepa donearen egunetan, an Amoroto'n nintzan aurten: itxasurreko euskal erri goikutsuz ornidu onetan, meza barrria eukan karmeldar gazte batek. Meza ostean, oitura danez, kanpai ta txaplin-ots artean, aurreeskua ta pelota partidu batzuk jokatu ta gero, bazkari gozo lurruntsua. Azkenik, sabela ondo aserik, —euskaldunok oi dogu au be—, abesti ta bertsolariak. Lenen, abots zu lagarriz kanta mordoa aletu zan; gero bertsolariak bere ekiñaldi. Ni neu zoli ta ernai nengoan zer jazoko. Eta ona: kantu-bitartean jentea berbatsu egoan arren, bertsolariak bere jarduna asi eban, danak ixillera ziran, eta ak amaituartean, ez eban iñok txistik be atera. Bazkaldar guztiok konturatu gintzazan erriak, erri zeak zelako itzal, begirune ta maite-sua dautson erri-olerkariari, naizta kaxkar, txepetx antzeko egazk daduna izan. Ez, euren saillean ez dira txiki, gaillen ta misteriz beteak baiño. Nor eurok aiña erri-biotzari kiliki goxoa eragiteko?

Aintxiña baten, mundu guztian ziran onakoak: gaur gure artean eta, bakkrik. Oneik gora jaso ta ugaritu bearrrean gagoz.

Eta, ain zuzen be, aurten ba-dogu zorionez bertso-iskanbilla Bizkai alderdi ontan, batez be bertsolarien urteko konkursu edo zeingeiagoka dala-ta. Atzen-ekiñaldi edo saioa Bilbo'ko Zeten enparatzan egin aurretik, bost erritan, ots, Urkiola'n, Mungia'n, Bermeo'n, Markiña'n eta Zeanuri'n egin bear ziran orreitakoak. Eta ainbat eta ainbat bertsolari, zar eta gazte, baturik egundoko jarduna egiñak doguz, entzule guztiek adurra dariola itxi ta txalo-zartada zaratatsuak irabazirik.

Eta guk, olerki ta bertso-saillean diar dugunok, ezin ezelan be albora laga euskal olerkiaren alderdi berezi an. Aurrerantzean bada, OLERTI maite onen orrialdeetan jaso ta batuko doguz, esku-xamur ta biotz-gori, erri-bertsolari onein ziturik bikain eta kutunenak.